



ARTXIBOKO TEKNIKARIA

2025/03/10

ARIKETA TEORIKOA: JARRAIBIDE ORRIA

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko. Ariketa egiteko moduz zalantza edo zailtasunik baduzu, ez dudarik izan eta galdetu zaintzaileei ariketa hasi baino lehenago.

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. **Sakelako telefonorik ekarri baduzu, deskonektatu egin behar duzu.** Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo gainerako hautagaiei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.

////////////////////////////////////

- Mahai gainean honako material hau izan behar duzu: zerbait falta bazaizu, eskatu zure inguruko zaintzaileari.
 - **Erantzunen orria:** EZ IDATZI EZER, harik eta agindua eman arte. Erantzun orria bikoitza da, bata zuria eta bestea horia. Ez banatu orriok ariketak amaitu arte. Izan ere, ariketak amaitu ondoren, orri zuria bakarrik entregatu beharko duzu, eta orri horia zeuretzat gorde.
 - Oso garrantzitsua da laukitxoak **ondo markatzea**, orrian bertan esaten den erara; hau da, **laukitxo osoa bete** eta ilundu behar da. Ez egin, bada, ez ixarrik (x), ez biribilik. Arau hau betetzen ez baduzu, litekeena da baliorik gabe geratzea zure ariketa. Ezin da tipexik erabili, eta arkatzik ere ez.
- **Ariketa teorikoak bi proba izango ditu:**
 - Test erako probak izango dira.
 - Galdera bakoitzak 4 erantzun aukera izango ditu, eta bakarra izango da zuzena. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzunen orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
 - Erantzun okerrak ez dira penalizatuko.



- Bi probak egiteko denbora ordu bat eta bost minutukoa (1h. 5min.) izango da.

○ **Lehenengo proba, gaitegi orokorrari buruzkoa:**

- Galdera kopurua: 20 galdera, eta beste 5, ordezkioak.
- Puntuazioa: 0-10 bitarteko puntuazioa eskuratu ahal izango da, eta proba hau gainditzeko gutxienez 3 puntu eskuratu beharko dira.

○ **Bigarren proba, gaitegi espezifikoari buruzkoa:**

- Galdera kopurua: 40 galdera, eta beste 5, ordezkioak.
- Puntuazioa: 0-20 bitarteko puntuazioa eskuratu ahal izango da, eta proba hau gainditzeko gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira.

- Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu, atera ezazu erantzunen orriko orri horia, zeuretzat da-eta; gero eskua jaso, eta emaziozu orri zuria zaintzaileari. Ondoren, aretotik irten ahal izango zara.
- **Azken 15 minutuetan** gelatik irtetea sor daitezkeen zarata-arazoak direla-eta, malgutasunez jokatu da: enbarazu arazorik ikusten ez bada irteten utziko zaizue amaitu ahala; bestela, ez.
- **Behin-behineko emaitzak** Eibarko Udalaren iragarki taulan eta webgunean (www.eibar.eus) argitaratuko dira.
- **Hautaketa prozesuaren balorazioa** egin nahi izanez gero, sakatu hemen (www.eibar.eus: Sarrera/ Udala/ Udal sailak eta Zerbitzuak/ Antolaketa eta Langileria/ Hautaketa prozesuen zerbitzu karta/ Balorazio-inkesta).

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK